



# **GOBERNU BILERA**

Prentsa-Txostena  
Erabaki nagusiak

## **CONSEJO DE GOBIERNO**

Dossier de Prensa  
Acuerdos destacados

**Vitoria-Gasteiz, 2019ko ekainak 25**

**Vitoria-Gasteiz, 25 de junio de 2019**

## Lehendakaritza

### JAURLARITZAK ONARTU ETA LEGEBILTZARRERA BIDALI DU EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KULTU-LEKU EDO -ZENTROEI ETA ERLIJIO-ANIZTASUNARI BURUZKO LEGEA

- **Kultu-zentroak irekitzeko eta erabiltzeko arauketa-esparrua ematen du, erlijio-askatasunerako oinarrizko eskubidea bermatzeko**
- **Proiektuak EAEko Erlijioen arteko Kontseilua sortzea ere aurreikusten du, elkarbizitzari begira erlijioen arteko elkarrizketarako lehentasunezko esparrua izateko**

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du Euskal Autonomia Erkidegoko Kultu-Leku edo Zentroei eta Erlijio Aniztasunari buruzko lege-proiektua, gure gizartean elkarbizitza, aniztasuna eta erlijio-askatasunerako eskubidea babesteko.

Lege-proiektua osatzen duten artikuluen bitartez, kultu-zentroak irekitzeko eta erabiltzeko esparrua arautzen da, eta horrekin pertsonen eta elizen, konfesioen eta erlijio-elkarteen erlijio-askatasunerako oinarrizko eskubidea bermatu nahi da; hori guztia euren artean inolako diskriminaziorik izan ez dadin.

Era berean, gure gizarteko erlijio-aniztasunaren kudeaketa positiboa egiteko elkarrizketa eta akordio mekanismoak sortzea ere arautu nahi izan da. Helburu horrekin, EAEko **Erlijioen arteko Kontseilua** sortzea arautzen da, elkarbizitzari begira, erlijioen arteko elkarrizketarako lehentasunezko esparrua izateko. Kontseiluaren eginbeharrak izango dira aholkularitza eta informazioa ematea euskal erakundeek hartzen dituzten eta erlijio- eta kultu-askatasuna gauzatzean eragina izan dezaketen ekimenetan eta erabakietan.

Euskadiko Erlijioen arteko Kontseilua Euskadin erlijio-aniztasunaren kudeaketa positiboa dinamizatzeko eragilea izateko sortu da. Erakundea, erlijio-konfesioak, erakunde akademikoak eta gizarte zibileko antolakundeak elkartzeko gunea izango da. Azken batean, elkarrizketarako eta akordiorako foro bat izango da, eta bertan gure gizartearen aniztasuna babesteko eta sustatzeko koherenteak diren jarduketak proposatuko eta diagnostikoak partekatuko dira.

Antolamendu juridiko demokratiko guztiek, bai eta Giza Eskubideen Nazioarteko Araubideak ere, pertsona orok duen erlijio- eta kultu-askatasuna aitortzen dute, oinarrizko eskubidetzat hartuta eta berme juridiko handienarekin. Europa mailan, berriz, babes hori Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 9. artikuluan eta Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 10. eta 22. artikuluetan dago jasota.

Erlijio-askatasuna 1978ko Konstituzioaren 16. artikuluan ere aitortzen da, eta Erlijio Askatasunari buruzko uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoaren bidez garatu da. Lege honen bigarren artikuluan bermatzen da elizek, konfesioek eta erlijio-elkarrekin duten eskubidea helburu erlijiosoekin elkartzeko edo kulturako lekuak izateko, oinarrizko eskubide horren berezko ezaugarri gisa.

Euskal gizartean, Europako beste gizarte garatu batzuetan bezala, erlijio-aniztasuna gero eta handiagoa da, eta fenomeno hori, segur aski, behin betikoa eta itzulezina izango da.

Erljio-askatasuna erabiltzearen adierazpen publiko, zehatz eta agerikoena, hain zuzen ere, tokian tokiko gizarte- eta erlijio-errealitate bakoitzaren arabera, erlijio-aniztasunari erantzungo dioten kulturako lekuak eta zentroak izateko aukera da. Alde horretatik, lege-proiektu honetan ezartzen da udalen hirigintza-antolamenduko planetan erlijio-erabileretarako ekipamenduetara bideratutako lurzoru-erreserbak aurreikusi behar dituztela, bertako lurzoru-erabilgarritasunaren arabera.

Horrez gainera, hirigintza-lizentziei, kultu-zentroak irekitzeko komunikazioei buruzko arauak, bestelako jarduera-baimenak, kultu-zentroek eta -lekuek nahitaez bete beharreko baldintza teknikoak eta materialak, bestelako jarduera-baimenak eta irekitzeko baldintzak ez betetzearen kontrako neurriak ere zehazten dira.

Bestalde, titulartasun publikoko ekipamendu edo guneak noizean behin erlijio-xedeetarako erabiltzea ere arautzen da, eta, alde horretatik, udalek konfesio batek baino gehiagok erabiltzeko leku, lokal edo eraikinak izateko aukera ere jasotzen da.

### **Lau printzipio**

Lau printzipio daude lege-proiektuaren edukiaren oinarrian:

- a) Erljio- eta kultu-askatasuna erabiltzeko bermea ematea
- b) Euskal gizartean dauden erlijio-elkarte eta -konfesioen artean tratu-berdintasuna bermatzea.
- c) Segurtasun- eta osasungarritasun-baldintzarik onenak bermatzea eta ezartzea kultuko eta beste erlijio-erabilera batzuetarako guneak irekitzeko eta erabiltzeko orduan.
- d) Konfesioek eta erlijio-elkarteek erlijio- eta kultu-askatasunaz baliatzeko lekuak edukitzeko duten eskubidea.

Arauren helburuetako bat bereizkeria saihestea da. Horretarako, proiektuak zuzeneko eta zeharkako bereizkeria zehazten ditu:

- a) Zuzeneko bereizkeria gertatzen da eliza, erlijio-konfesio edo erlijio-elkarte batek, kultu-leku bat irekitzearekin eta horren funtzionamenduarekin lotutako alderdiren batean tratu desberdina jasotzen duenean.
- b) Zeharkako bereizkeria gertatzen da udalaren hirigintza-antolamenduko plan batek, lizentzia edo emakida batek desabantaila berezi bat eragiten dionean konfesio bati beste batzuen aldean.

Laburbilduta, lege-proiektu honen bidez erantzun arauemaille koherentea, bideragarria eta indarrean dagoen antolamenduaren printzipioekin bete-betea bat datorrena eman nahi zaio estu-estu oinarritzko eskubide bati lotuta dagoen errealitate sozial berri horri.

## Lehendakaritza

### **JAURLARITZAK EUSKADITIK LIDERATUTAKO IKERKETAREN ARLOKO TRAKZIO-PROIEKTUAK EUROPAN HOBETO AURKEZTEN LAGUNDUKO DU**

- **Helburua Europako Batzordearen laguntzak eskuratu nahi dituzten Euskadiko erakundeek proposatutako ikerketa-proiektu handien arrakasta-maila hobetzea da**

Eusko Jaurlaritzak Euskaditik lideratzen diren eta Europako Batzordeak Horizonte 2020 programaren baitan ematen dituen laguntzak eskuratu nahi dituzten ikerketa-proiektu handiak Europan hobeto aurkezten lagunduko du. Helburu horrekin, Gobernu Kontseiluak gaur onartu du Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko eragileei (besteak beste, unibertsitateei, zentro teknologikoei eta ikerketa-zentroeiei eta osasun-ikerketako bioinstitutuei) zuzendutako laguntzak arautzen dituen dekretua.

Laguntzen oinarrizko helburua da Euskadiko erakundeek lideratzen dituzten eta Europako Batzordeak egindako lehenengo ebaluazio-fase baten ondoren lehen hautaketa gainditu duten ikerketa-proiektuen proposamenen aurkezpena eta, ondorioz, arrakasta-maila hobetzea. Proiektu horiek 4 milioi eurotik gorako dimentsioa izan behar dute, eta gutxienez Euskadiko enpresa bat izan behar dute.

Laguntzak gehienez 30.000 eurokoak izango dira eskaera bakoitzeko, hainbat urtetarako izango dira eta horretara bideratuko dira Lehendakaritzak kudeatzen duen Berrikuntza Funtseko 1,2 milioi euro inguru, 2019an eta 2020an banatuta. Inbertsio horren Euskadin eragin ekonomikoa 6 milioi eurokoa izatea aurreikusten da, Euskadiko bazkideek lideratutako Europako 10 proiektu handi kontratatzea ekar baitezake, horietako bakoitzak 600.000 euro izanik.

Laguntza-programa honek Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren eta Hezkuntza Sailaren beste batzuk osatzen ditu; programa horiek, orokorrean, ikerketaren eta berrikuntzaren arloko euskal eragileek Horizonte Europa programan parte hartzen laguntzen badute ere, ez daude berriaz Euskaditik lideratutako trakzio-proiektu handiak sustatzera zuzenduta.

## Gobernantza

### **EUSKO JAURLARITZAK EUSKADIKO TOKI ERAKUNDEEI BURUZKO LEGEAREN GARAPENEAN AURRERA EGITEKO LEHEN DEKRETUA ONETSI DU**

- Lehen testu horren bidez, honako hauek dira helburu: administrazioetan bikoiztasunik ez egotea, baliabide publikoak arrazionalizatzea eta politika publikoak finantzatzen direla eta horiei eusten zaiela bermatzea
- Aurrerantzean, [Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legean](#) zehazten ez diren eskumenak baliatu nahi dituzten udalek aurretiaz baimena eskatu beharko diete Eusko Jaurlaritzari eta foru-aldundi eskudunetako ogasunei

Gobernu Kontseiluak, gaur, “*Udal-eskumenen klausula unibertsalaren ondoriozko jarduera, zerbitzu edo prestazioak egikaritzeari buruzko dekretua*” onetsi du. Arauaren helburu nagusiak dira administrazio publikoen artean eskumenak ez bikoiztea eta ez gainjartzea, baliabide publikoak arrazionalizatzea eta udal-politika publikoen finantzaketa egokia bermatzea. Hori dela eta, aurrerantzean, toki-erakunde batek, [Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen](#) 17. artikuluan berezko, transferitu edo eskuordetu gisa zehaztuta ez dagoen eskumena bere gain hartu nahi duenean, **aurretiaz derrigorrezko hiru txosten izan beharko ditu (IV. eta V. kapituluak):**

- ✓ Bat, toki-erakundearen barnekoa, eta hura udalaren osoko bilkurari jakinarazi beharko zaio.
- ✓ Beste bat, Eusko Jaurlaritzarena, beste administrazio publiko baten eskumena bikoizten ari den ala ez balioesteko. Gobernuak 20 egun baliodun izango ditu analisisa egiteko.
- ✓ Eta beste bat, foru-aldundi eskudunarena, egikaritu nahi dituen jarduera, zerbitzu edo prestazioen finantzaketa-jasangarritasuna bermatzeko.

[Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legeak](#) ezarritakoaren arabera, udala hurbilen dagoen erakundea da. Horrela, nahiz eta berriazko eskumena ez izan, toki-erkidegoarentzat interesekoak diren jarduera, zerbitzu edo prestazioak gauza ditzake. Baina, hala egiteko, ezin izango da beste administrazio publiko batzuekin bikoiztasunik egon, eta ezingo da udal-ogasunaren jasangarritasuna arriskuan jarri. Hori hala dela ziurtatzeko, gaur onetsitako dekretuak eskumen berria lortu aurretik derrigorrezko txosten hirukoitz horren prozedura ezartzen du.

**III. kapituluak** ezarritako prozedurari jarraikiz, udalak berak hasiko du prozesua, alkatetzaren eskabidearen bidez, eta hark eskatuko ditu txostenak; txosten horiek aldekoak izan beharko dute, guztiek, nahitaez, toki-erakundeak jarduera, zerbitzu edo prestazio berriak egikaritu ahal izateko.

## **EUSKADIKO UDAL LEGEAREN GARAPENA**

Gaur onetsi den dekretua [Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea](#) garatzeko Eusko Jaurlaritzaren Araudi Programan jasotako artean lehena da. Urte-amaieran, bigarrena onetsiko da: *Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legean jasotako Euskarari buruzko Xedapenen Garapenaren Dekretua*.

## Gobernantza

### EUSKO JAURLARITZAK EUSKADIKO UDAL ETA MANKOMUNITATEETAN LAN EGITEN DUTEN LANGILEEN EUSKALDUNTZEA FINANTZATZEN LAGUNTZEN DU

- **Gobernuak 20.000 euro inbertituko ditu ordezkapenetan, langile publikoek liberazio partziala edo osoa hartu ahal izateko eta euskara-ikastaroetara joateko**

Eusko Jaurlaritzak, aurtan, 20.000 euro inbertituko ditu; horrela, Euskadiko udal eta mankomunitateei lagundu egingo die beren lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna lortzeko liberatzen dituzten langileen ordezkapenen kostua finantzatzen.

Laguntza horiek Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen ([IVAP](#)) bidez kudeatzen dira, eta honela banatuko dira:

- ✓ 18.000 euro, udal-administrazioetako langileen liberazioak finantzatzeko.
- ✓ 2.000 euro, mankomunitateetako langileen liberazioak finantzatzeko.

Astean 8, 10, 15 eta 25 irakastordu arteko ikastaroak lagunduko dira diruz, eta, azken kasu horretan, orduak barnetegi batean osatzeko aukera ere aurreikusten da.

### HIZKUNTZA-NORMALIZAZIOA

Laguntza horiek IVAPen "[2019ko Dirulaguntzen Plan Estrategiko](#)"an sartzen dira. Horrela, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak bere eginkizun nagusietako bat betetzen du, administrazioan euskararen erabileraren normalizazioa sustatzea. Zenbateko horren bidez, Eusko Jaurlaritzak bermatu egingo du herritarrek beren administrazioarekin nahi duten hizkuntzan harremanetan jarri ahal izateko duten eskubidea.

## Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

### **2,16 MILIOI EURO GARAPEN JASANGARRIA SUSTATZEKO TOKI ERAKUNDEENTZAKO LAGUNTZETARAKO**

Gobernu Kontseiluak onartu egin du Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren, Iñaki Arriolaren, agindua; horren bidez, garapen jasangarria sustatzeko ekintzak egiten dituzten udalei, mankomunitateei, beste toki-erakunde batzuei, tokiko erakunde autonomoei, toki-garapeneko agentziei eta tokiko merkataritza-sozietateei diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak eta deialdia ezartzen dira. Aginduak honako diru-laguntza ildo hauek aurreikusten ditu:

- a) Lurzoru kutsatuak: lurzoruaren kalitatea ikertzeko, prebenitzeko eta berreskuratzeko lanak sustatzen dituzten ekintzak.
- b) Klima-aldaketa: EAEn isuriak arintzeko (berotegi-efektuko gasen isuri garbiak murriztea) eta egokitzeko (klima-aldaketaren eraginak murrizteko plangintza) ekintzak.
- c) Natura-ondarea: EAEko biodibertsitatea eta geodibertsitatea kontserbatzea, berrezartzea edo hobetzea sustatzeko ekintzak.
- d) Ekonomia zirkularra: Tokiko zirkulartasuna sustatzeko ekintzak.
- e) Jasangarritasunerako hezkuntza: Tokiko Agenda 21 edo Tokiko 2030 Agenda eta Eskolako Agenda 21 koordinatzea sustatzen duten ekintzak..

Deialdirako aurrekontu-zuzkidura 2,16 milioi eurokoa da, eta honela banatzen da:

- 600.000 euro lurzoru kutsatuen ildorako
- 600.000 euro klima-aldaketaren ildorako
- 450.000 euro natura-ondarearen ildorako
- 250.000 euro ekonomia zirkularraren ildorako
- 260.000 euro jasangarritasunerako hezkuntzaren ildorako

Eskabideak aurkezteko epea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian agindua argitaratu eta biharamunetik irailaren 14ra arte egongo da irekita. Eskabideak baliabide elektronikoen bidez aurkeztu beharko dira hemen: [http://www.euskadi.eus/zerbitzu\\_elkartzea/2019/herrijasangarriak/web01-tramite/eu](http://www.euskadi.eus/zerbitzu_elkartzea/2019/herrijasangarriak/web01-tramite/eu)

## Ogasun eta Ekonomia

### **GOBERNU KONTSEILUAK EAEKO ARRISKUEN ASEGURAMENDUA KONTRATATZEKO BAIMENA ONETSI DU, 53.320.000 €-REN TRUKE**

Gobernu Kontseiluak, Euskadiko Autonomia Erkidegoko arriskuen aseguramendua kontratatzeke espedientea hasteko baimena onetsi du gaur. Baimen hori ezinbestekoa da, 5.000.000 €-tik gorako kontratua baita, Euskadiko Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazio araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuan, 2018ko ekitaldirako Euskadiko Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onetsi dituen abenduaren 22ko 5/2017 Legearekin erlazionatuta dagokionean, jasotakoarekin bat etorritz.

Indarraldia 2018ko martxoaren 1ean hasi zuen egungo kontratua 2020ko urtarrilaren 16an amaituko da. 53.320.000 €-ko erregulazio harmonizatua duen kontratua denez, Ogasun eta Ekonomia Saitetik kontratazio berriari ekiteko beharrezkoak diren izapideak egiteari ekin zaio, egungo kontratua amaitzen denerako kontratu berria esleituta izateko moduan egon gaitezen.

Kontratua 8 lotetan banatuko da, aseguraturako arriskuaren arabera: EAEren Osasun arloko Erantzukizun Zibila; Erantzukizun Zibil Orokorra; Bizi eta Istripu estaldurei buruzko arrisku pertsonalak; Ibilgailuen erabileratik sortutako arriskuak; Administrazioako ondasun guztien Kalte Materialen arriskuak (edukitzailea eta edukia); Helikopteroen erabileraren ondoriozko arriskua; Itsasontzien erabileraren ondoriozko arriskua; eta ziber-arriskua.

Amaitzeko, esan behar da kontratu berriaren indarraldia 2022ko urtarrilaren 16ra arte luzatuko dela.



## Hezkuntza

### 600.000 EURO GEHIAGO 2018-2019 IKASTURTEKO UNIBERTSITATE-BEKETARAKO

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 2018-2019 ikasturteko unibertsitateko eta goi-mailako ikasketak egiteko diru-laguntzearako deialdiaren diru-kopurua 600.000 euroan handitzea. 2018ko uztailaren 3ko Aginduak (2018ko uztailaren 10eko EHAAn argitaratua) unibertsitate-beken deialdia onartu zuen, 26 milioi euroko diru-kopuruarekin. Handitze honen ondoren, 2018-2019 ikasturteko unibertsitate-beketarako diru-kopurua 26,6 milioi eurokoa izango da orotara.

Joan den 2018-2019 ikasturte akademikoan 11.542 euskal ikasle bekadun izan dira, aipaturiko beka deialdiari esker. Dena den, unibertsitate publikoei *prezio publikoa* deritzon kontzeptuagatik egiten zaien ordainketa oraindik ixteko dela (ikasle bekadunen matrikula zuzenean ordaintzen baitie Hezkuntza Administrazioak unibertsitate publikoei), beka hauek arautzen dituen Aginduan aurreikusiriko diru-kopurua handitzea beharrezko gertatzen da.

Unibertsitate-beka hauek deitzen dituen Aginduak berak jasotzen du hasieran aurreikusiriko diru-kopurua ugaritzeko aukera, onarturiko beka guztien ordainketa egiteko beharrezko gertatuko balitz. Era honetan, baldintzak betetzen dituzten ikasle guztiek dagokien diru-laguntza jasoko dutela bermatzen da, euren ikasketetan aurrera jarraitu ahal izan dezaten.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAK 2.260.000 EURO BIDERATUKO DITU AURTEN IKUS-ENTZUNEZKO EKOIZPENA BULTZATZERA**

- **Joan den ekitaldian, guztira, 26 ikus-entzunezko proiekturi eman zitzaien babesa dirulaguntza lerro honen bidez**

Eusko Jaurlaritzak 2.260.000 euro bideratuko ditu aurtan ikus-entzunezko ekoizpena bultzatzera dirulaguntza irekien bitartez. Gobernu Kontseiluak bere gaurko bileran onartu du ikus-entzunezko ekoizpenerako aurtengo deialdia, iaz bezala bost modalitate izango dituen. Pasa den urtean 26 ikus-entzunezko proiekturi eman zitzaien babesa dirulaguntza hauen bidez.

Deialdi hau ikus-entzunezkoak bultzatzeko Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak duen lerro nagusietako bat da. Ikus-entzunezko ekoizpenerako 2018ko laguntza-deialdiaren bitartez, diruz lagundu ziren fikziozko lau film luze, aurrekontu txikiko fikziozko bi film luze, animazioko bi film luze, sorkuntzako bi dokumental eta, azkenik, hamahiru film labur. Aurtan ere modalitate horiek mantenduko dira:

- Fikziozko film luzeak (1.060.000 euro).
- Aurrekontu txikiko fikziozko film luzeak (300.000 euro).
- Animazioko film luzeak (500.000 euro).
- Sorkuntzako dokumentalak (240.000 euro).
- Film laburren ekoizpena (160.000 euro).

Laguntza-lerro honez gain, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak proiektuak garatzera bideratutako deialdi bat du. Horren helburua da garatzen diren ekoizpenen prestakuntza eta diseinua bultzatzea, ekoizpen-fasearen aurretik egindako lanei erreparatuz. Deialdi horretara 300.000 euro bideratzen dira urtero. Halaber, kultura-sorkuntzarako laguntzen deialdiak zinema-gidoiak sortzeko modalitate bat du, eta 104.000 euro bideratzen dira horretara urtero. Era horretan, hiru lerro horien bidez, Eusko Jaurlaritzak 2.634.000 euro bideratzen ditu urtero ikus-entzunezkoa bultzatzera.

Ikus-entzunezkora bideratutako diru-laguntzak nabarmen hazi dira legealdia hasi denetik, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak dirulaguntzen aurrekontua % 35 igotzea erabaki baitzuen. Hiru laguntza-lerro horiez gain, EITBk 5 milioi inguru bideratzen ditu urtero zinemagintza eta, oro har, Euskadiko ikus-entzunezkoak bultzatzera. Azkenik, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak baditu euskal ikus-entzunezkoa indartzea helburua duten bestelako proiektuak, hala nola, Noka Mentoring edo Kimuak.

## Presidencia

### EL GOBIERNO APRUEBA Y REMITE AL PARLAMENTO LA LEY DE LUGARES, CENTROS DE CULTO Y DIVERSIDAD RELIGIOSA EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO

- **Ofrece un marco de regulación para la apertura y utilización de centros de culto, con el fin de garantizar el derecho fundamental a la libertad religiosa**
- **El proyecto contempla la creación del Consejo Interreligioso Vasco, como marco preferente de diálogo interreligioso para la convivencia**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy el Proyecto de Ley de Lugares, Centros de Culto y Diversidad Religiosa en la Comunidad Autónoma del País Vasco, cuyo objetivo es proteger la convivencia, la diversidad y el derecho a la libertad religiosa en nuestra sociedad.

A través de su articulado, el nuevo proyecto de ley regula el marco para la apertura y utilización de centros de culto, con el que se pretende garantizar el ejercicio del derecho fundamental a la libertad religiosa de las personas y de las diferentes iglesias, confesiones y comunidades religiosas; todo ello sin que pueda producirse ninguna discriminación entre las mismas.

Asimismo, busca establecer con carácter normativo la creación de mecanismos de diálogo y acuerdo para una gestión positiva de la diversidad religiosa de nuestra sociedad. Con este fin, se regula la creación del **Consejo Interreligioso Vasco**, como marco preferente de diálogo interreligioso para la convivencia. El Consejo tendrá funciones de asesoramiento e informe en aquellas iniciativas y decisiones de las Instituciones vascas que puedan afectar de forma específica al ejercicio de las libertades religiosa y de culto.

El Consejo Interreligioso Vasco se proyecta como el motor dinamizador de la gestión positiva de la diversidad religiosa en Euskadi. Se articula como un punto de encuentro de instituciones, confesiones religiosas, entidades académicas y organizaciones de la sociedad civil. Se configura en última instancia como un foro de diálogo y acuerdo en el que compartir diagnósticos y proponer actuaciones coherentes con la protección y promoción de la pluralidad de nuestra sociedad.

Todos los ordenamientos jurídicos democráticos, así como la normativa Internacional de los Derechos Humanos, reconocen el derecho de las personas a la libertad religiosa y de culto como un derecho fundamental, dotado de las máximas garantías jurídicas. En el ámbito europeo, esta protección está reflejada en el artículo 9 del Convenio Europeo de Derechos Humanos, así como los artículos 10 y 22 de la Carta de Derechos Fundamentales de la Unión Europea.

La libertad de religión se reconoce también en el artículo 16 de la Constitución de 1978 y ha sido objeto de desarrollo mediante la Ley Orgánica 7/1980, de 5 de julio, de Libertad Religiosa. Esta ley garantiza, en su artículo segundo, el derecho de las iglesias, confesiones y comunidades religiosas a

establecer lugares de culto o de reunión con fines religiosos, como una parte inherente de aquella libertad fundamental.

La sociedad vasca, como otras sociedades europeas desarrolladas, presenta hoy un panorama de creciente pluralidad religiosa que posiblemente sea un fenómeno definitivo e irreversible.

El ejercicio de la libertad religiosa encuentra su expresión más pública, concreta y manifiesta, precisamente, en la posibilidad de contar, en función de cada realidad socio-religiosa local, con espacios y centros de culto normalizados que respondan a su diversidad religiosa.

En este sentido, este proyecto de Ley, determina que los planes municipales de ordenación urbanística deberán contemplar, en función de la disponibilidad de suelo existente, reservas para equipamientos de carácter religioso.

Concreta, además, los preceptos relativos a licencias urbanísticas, a la comunicación de apertura de centros de culto, otras autorizaciones de actividad, condiciones técnicas y materiales de obligado cumplimiento para los lugares y centros de culto, y medidas contra el incumplimiento de las condiciones de apertura.

Del mismo modo, se regula la utilización esporádica de equipamientos o espacios de titularidad pública para fines religiosos y contempla, en este sentido, la posibilidad de que los Ayuntamientos destinen lugares, locales o edificios de uso público a fines pluriconfesionales.

### **Cuatro principios**

Cuatro principios inspiran el contenido del proyecto de ley:

- a) La garantía del ejercicio de la libertad religiosa y de culto
- b) La garantía de igualdad de trato entre las diversas comunidades y confesiones religiosas
- c) La garantía de unas condiciones óptimas de seguridad y salubridad en la apertura y utilización de lugares y centros de culto.
- d) El derecho a disponer de lugares destinados al ejercicio de la libertad religiosa y de culto en condiciones de igualdad.

Uno de los objetivos de la norma es evitar cualquier forma de discriminación. A estos efectos, el proyecto define lo que se entiende por discriminación directa e indirecta

- a) Se produce discriminación directa cuando una iglesia, confesión o comunidad religiosa recibe, en relación con la apertura y funcionamiento de espacios de culto, un trato diferente injustificado.
- b) Se produce discriminación indirecta cuando un plan de ordenamiento urbanístico, una licencia, o concesión ocasionan una desventaja injustificada a una Confesión respecto a otras.

En definitiva, el Proyecto de Ley pretende ofrecer una respuesta normativa coherente, viable y plenamente conforme con los principios del ordenamiento vigente a una realidad social emergente e íntimamente ligada al ejercicio de un derecho fundamental.

## Presidencia

### **EL GOBIERNO AYUDARÁ A MEJORAR LA PRESENTACION EN EUROPA DE LOS PROYECTOS TRACTORES DE INVESTIGACIÓN LIDERADOS DESDE EUSKADI**

- **El objetivo es mejorar la tasa de éxito de las propuestas de grandes proyectos de investigación de entidades vascas que optan a ayudas de la Comisión Europea**

El Gobierno Vasco ayudará a mejorar la presentación en Europa de los grandes proyectos de investigación liderados desde Euskadi, que optan a las ayudas que concede la Comisión Europea dentro de su programa Horizonte 2020. A tal fin, el Consejo de Gobierno ha dado hoy luz verde al Decreto que regula las ayudas que estarán dirigidas a los Agentes de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación, esto es: universidades, centros tecnológicos y de investigación, y bioinstitutos de investigación sanitaria, entre otros.

El objetivo final de las ayudas es mejorar la calidad de la presentación -y por lo tanto la tasa de éxito- de las propuestas de proyectos de investigación liderados por entidades vascas, que ya han sido preseleccionadas tras una primera fase de evaluación realizada por la Comisión Europea. Estos proyectos deben tener una dimensión superior a los 4 millones de euros y contar con la presencia de, al menos, una empresa vasca.

Las ayudas tendrán una cuantía máxima de 30.000 euros por solicitud, son de carácter plurianual, y a ellas irán destinados cerca de 1,2 millones de euros provenientes del Fondo de Innovación que gestiona Lehendakaritza, distribuidos entre los años 2019 y 2020. Con esta inversión se estima que el impacto económico alcance los 6 millones de euros en Euskadi, dado que podría suponer la contratación adicional de 10 grandes proyectos europeos liderados por socios vascos, dotados cada uno de ellos con 600.000 euros.

Este programa de ayudas es complementario a otros ya existentes en los departamentos de Desarrollo Económico e Infraestructuras y Educación del Gobierno Vasco que, aunque apoyan genéricamente la participación en Horizonte Europa de los agentes vascos de investigación e innovación, no se dirigen específicamente a impulsar los grandes proyectos tractores liderados desde Euskadi.

## Gobernanza Pública y Autogobierno

### EL GOBIERNO VASCO APRUEBA EL PRIMER DECRETO PARA AVANZAR EN EL DESARROLLO DE LA *LEY DE INSTITUCIONES LOCALES DE EUSKADI*

- Este primer texto se ocupa de evitar duplicidades entre administraciones, racionalizar los recursos públicos y garantizar la financiación y sostenimiento de las políticas públicas
- A partir de ahora, los municipios que deseen ejercer competencias que no estén explicitadas en la [Ley de Instituciones Locales de Euskadi](#), deberán solicitar autorización previa al Gobierno Vasco y a las haciendas de las diputaciones forales competentes

El Consejo de Gobierno ha aprobado, hoy, el “Decreto sobre el ejercicio de las actividades, servicios o prestaciones derivados de la cláusula universal de competencias municipales”. El objetivo último de esta norma es evitar duplicidades y solapamientos de competencias entre administraciones públicas, racionalizar los recursos públicos y garantizar la adecuada financiación de las políticas públicas municipales. Por ello, a partir de ahora, cada vez que una entidad local quiera asumir una competencia que no esté explicitada como propia, transferida o delegada en el artículo 17 de la [Ley de Instituciones Locales de Euskadi](#), deberá contar **con tres informes previos obligatorios (Capítulos IV y V)**:

- ✓ Uno interno de la entidad local que deberá ser notificado al Pleno municipal.
- ✓ Uno del Gobierno Vasco para valorar si está o no duplicando la competencia de otra Administración Pública. El Gobierno tendrá 20 días hábiles para realizar el análisis
- ✓ Uno de la Diputación Foral competente para garantizar la sostenibilidad financiera de aquellas actividades, servicios o prestaciones que quiera llevar a cabo.

Según la [Ley de Instituciones Locales de Euskadi](#), los ayuntamientos son el nivel de proximidad por excelencia. Así, aunque no tengan la competencia explícita, sí pueden llevar a cabo actividades, servicios o prestaciones que sean de interés para la comunidad local. Pero solo podrán hacerlo cuando no exista duplicidad con otras administraciones públicas, ni ponga en riesgo la sostenibilidad de la hacienda municipal. Para asegurar que esto es así, el decreto aprobado hoy establece este procedimiento de triple informe obligatorio previa asunción de la nueva competencia.

Según el procedimiento establecido el **Capítulo III**, será el propio ayuntamiento el, mediante una solicitud de la alcaldía, inicie el proceso y solicite los informes que deberán ser necesariamente todos positivos para que la entidad local pueda llevar a cabo las nuevas actividades, servicios o prestaciones.

### DESARROLLO DE LA LEY MUNICIPAL DE EUSKADI

El decreto aprobado hoy, es el primero de los varios incluidos en el Programa Normativo del Gobierno Vasco para desarrollar la [Ley de Instituciones Locales de Euskadi](#). A finales de año se aprobará el segundo, el *Decreto de Desarrollo de las Disposiciones Relativas al Euskera Contenidas en la Ley de Instituciones Locales de Euskadi*.

## Gobernanza Pública y Autogobierno

### EL GOBIERNO VASCO AYUDA A FINANCIAR LA EUSKALDUNIZACIÓN DEL PERSONAL QUE TRABAJA EN LOS AYUNTAMIENTOS Y LAS MANCOMUNIDADES DE EUSKADI

- El Gobierno invertirá 20.000 euros en sustituciones para que el personal público pueda liberarse, parcial o totalmente, y acudir a cursos de euskera

El Gobierno Vasco invertirá, este año, 20.000 euros en ayudar a los ayuntamientos y mancomunidades de Euskadi a financiar el coste de las sustituciones del personal que libere para obtener perfil lingüístico acorde a su puesto de trabajo.

Estas ayudas, gestionadas a través del Instituto Vasco de Administración Pública, [IVAP](#), se distribuirán de la siguiente manera:

- ✓ 18.000 euros para financiar las liberaciones del personal de las administraciones municipales.
- ✓ 2.000 euros para financiar las liberaciones del personal de las mancomunidades.

Se subvencionarán cursos de 8, 10, 15 y hasta 25 horas lectivas semanales, y se contempla, en este último caso, incluso, la posibilidad de completar las horas en un *barnetegi*.

### NORMALIZACIÓN LINGÜÍSTICA

Estas ayudas se enmarcan dentro del “[Plan Estratégico de Subvenciones 2019](#)” del IVAP. De esta manera, el Instituto Vasco de Administración Pública cumple con una de sus principales labores, que es la de impulsar la normalización del uso del euskera en la administración. Con este importe, el Gobierno Vasco garantizará el derecho de la ciudadanía a relacionarse con su administración en el idioma que desee.

## Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda

### **2,16 MILLONES EN AYUDAS A ENTIDADES LOCALES PARA PROMOVER EL DESARROLLO SOSTENIBLE**

El Consejo de Gobierno ha dado luz verde a la Orden del Consejero de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Medio Ambiente, Iñaki, Arriola, por la que se establecen las bases reguladoras y se convoca la concesión de subvenciones a Ayuntamientos, Mancomunidades, otras Entidades Locales, Organismos Autónomos Locales, Agencias de Desarrollo Local y Sociedades Mercantiles Locales que realicen acciones que promuevan el desarrollo sostenible. La orden contempla las siguientes líneas de subvención:

- a) Suelos contaminados: acciones que promuevan las labores de investigación, prevención y recuperación de la calidad del suelo.
- b) Cambio climático: acciones encaminadas a la mitigación (reducción de las emisiones netas de gases de efecto invernadero) y la adaptación (planificación y acciones para reducir los efectos del cambio climático) en la CAPV.
- c) Patrimonio natural: acciones que promuevan la conservación, restauración o mejora de la diversidad biológica y geodiversidad de la CAPV.
- d) Economía Circular: acciones que promuevan la circularidad a escala local.
- e) Educación para la sostenibilidad: acciones que promuevan la coordinación entre la Agenda Local 21 o la Agenda 2030 local y la Agenda 21 Escolar.

La dotación presupuestaria para la convocatoria asciende a 2,16 millones de euros, que se distribuyen de la siguiente manera:

- 600.000 euros para la línea de suelos contaminados
- 600.000 euros para la línea de cambio climático
- 450.000 euros para la línea de patrimonio natural
- 250.000 euros para la línea de economía circular
- 260.000 euros para la línea de educación para la sostenibilidad

El plazo de presentación de solicitudes permanecerá abierto hasta el 14 de septiembre desde el día siguiente a la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco. Las solicitudes se presentarán por medios electrónicos en [http://www.euskadi.eus/agrupacion\\_servicios/2019/herrijasangarriak/web01-tramite/es](http://www.euskadi.eus/agrupacion_servicios/2019/herrijasangarriak/web01-tramite/es)



## Hacienda y Economía

### **AUTORIZACIÓN DEL CONTRATO DEL ASEGURAMIENTO DE LOS DISTINTOS RIESGOS DE LA CAV, POR VALOR DE 53.320.000€**

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la autorización para iniciar el expediente de contratación del aseguramiento de los distintos riesgos de la Comunidad Autónoma de Euskadi. Esta autorización es preceptiva al tratarse de un contrato de un importe superior a 5.000.000€, de acuerdo con lo recogido en el Decreto 116/2016, de 27 de julio, sobre el régimen de la contratación del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi en relación con la Ley 5/2017, de 22 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2018.

El actual contrato, cuya vigencia comenzó el 1 de marzo de 2018, finaliza el día 16 de enero de 2020, por lo que al tratarse de un contrato sujeto a regulación armonizada que asciende a 53.320.000€ desde el departamento de Hacienda y Economía se ha procedido a realizar los trámites necesarios para impulsar una nueva contratación de cara a que a la fecha de finalización del contrato actual estemos en condiciones de tener el nuevo contrato adjudicado.

El contrato se dividirá en 8 lotes en función del riesgo asegurado, como son: Responsabilidad Civil Sanitaria y de la Responsabilidad Civil General de la CAE, riesgos personales referidos a coberturas de Vida y Accidentes, riesgos derivados del uso de Vehículos, de Daños Materiales de todos los bienes (continente y contenido) de la Administración, del uso de Helicópteros, de Embarcaciones y ciber riesgo.

Finalmente señalar que la vigencia del nuevo contrato se extenderá hasta el 16 de enero de 2022.

## Educación

### **AMPLIACIÓN DE 600.000 EUROS PARA LAS BECAS UNIVERSITARIAS DEL CURSO 2018-2019**

El Consejo de Gobierno ha autorizado en su reunión de hoy, a propuesta de la consejera de Educación, ampliar en 600.000 euros el importe de la convocatoria de becas para realizar estudios universitarios y otros estudios superiores, correspondiente al último curso 2018-2019. La Orden del 3 de julio de 2018 (publicada en el BOPV del 10 de julio de 2018) aprobaba la convocatoria de estas becas universitarias con un importe de 26 millones de euros. Tras este incremento, el importe global para las becas universitarias del curso 2018-2019 asciende a 26,6 millones de euros.

El curso académico 2018-2019 se ha cerrado con 11.542 alumnas y alumnos vascos beneficiarios de estas becas. Quedando pendiente el cierre de la liquidación a las universidades públicas por el concepto de *precio público* (es decir, la matrícula del alumnado beneficiario que se abona directamente desde la Administración Educativa a las universidades públicas), se hace necesaria la ampliación de la cantidad prevista por la Orden que convoca estas becas.

La propia Orden de convocatoria recoge la posibilidad de incrementar la cuantía originariamente prevista, siempre que sea necesario para cubrir el total de las becas concedidas, garantizando de esta manera que todo el alumnado que cumpla con los requisitos dispondrá de ayuda económica para sus estudios.

## Cultura y Política Lingüística

**EL DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA  
DESTINARÁ ESTE AÑO 2.260.000 EUROS A IMPULSAR LA PRODUCCIÓN  
AUDIOVISUAL**

- **Durante el pasado ejercicio se apoyaron a través de esta línea de ayudas un total de 26 proyectos audiovisuales**

El Gobierno Vasco destinará este año 2.260.000 euros a impulsar la producción audiovisual a través de subvenciones directas. El Consejo de Gobierno ha aprobado en su sesión de hoy la convocatoria de ayudas a la producción audiovisual para este 2019, que contará con un total de cinco modalidades. Durante el pasado año se apoyaron a través de estas ayudas un total de 26 proyectos audiovisuales.

Esta convocatoria abierta de subvenciones es una de las principales líneas de impulso al audiovisual del Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco. A través de la convocatoria de ayudas a la producción audiovisual de 2018 se subvencionaron parcialmente cuatro largometrajes de ficción, dos largometrajes de ficción de bajo presupuesto, dos largometrajes de animación, cinco documentales de creación y trece cortometrajes. Las ayudas contarán, también este año, con cinco modalidades:

- Largometrajes de ficción (1.060.000 euros).
- Largometrajes de ficción de bajo presupuesto (300.000 euros).
- Largometrajes de animación (500.000 euros).
- Documentales de creación (240.000 euros).
- Producción de cortometrajes (160.000 euros).

Además de esta línea de ayudas, el Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco cuenta en el ámbito del audiovisual con una convocatoria de ayudas dirigida al desarrollo de proyectos audiovisuales, cuyo objetivo es impulsar la preparación y diseño de producciones, poniendo el foco en las operaciones anteriores a la fase de producción propiamente dicha. A esta convocatoria se destinan anualmente 300.000 euros. Asimismo, dentro de la convocatoria de ayudas a la creación cultural existe una modalidad dirigida a la creación de guiones cinematográficos, a la que se destinan anualmente 104.000 euros. Así, a través de estas tres líneas, el Gobierno Vasco destina cada año 2.634.000 euros a impulsar el ámbito del audiovisual.

Las subvenciones destinadas al audiovisual en Euskadi experimentaron un importante incremento al comienzo de la legislatura, cuando el Departamento de Cultura y Política Lingüística decidió aumentar un 35 % el presupuesto, llegando a la cantidad actual. Además de estas tres líneas de ayudas, EITB destina cada año más de 5 millones a impulsar el cine y, en general, el audiovisual vasco. Finalmente, el Departamento apoya proyectos como Noka Mentoring o Kimuak que también están dirigidos a fortalecer el audiovisual vasco.